

Pakeagatik Pakea Galdu

Nabarmena da gaurko gizonak soma ohi duen sendetasun, berdintasun, egia, zuzenbide, askatasun, maitasun eta pakea egaria. Egarrri ori asetzeko ametsetan eta irrikaz bizi da gizona edonon dela ere. Bai zuria eta bai beltza, bai gaztea eta bai zaharra bai sinesuna eta bai sinesgabekoa, nahiz iritzi batekoa nahiz bestekoa.

Amets bakarrik ez du egiten, ordea. Pakearen biltza dabil. Pakeagatik kezkatzen da eta borrokatzen. Pakeagatik gaitzen du pakea. Pakeagatik egiten bait ditu armak. Gero-ta gehiago, gero-ta indartsuagoa, gero-ta gaitzagoa.

Eta ba al ditek pakerik armekin? Egia al da erromatarren esacera: "Gerutu guda pakea nahi baduzu"? Eta bide ortatik pakerik ez badator, uko egin al dezaiok gaurko gizonak armak egiteari?

Armen bidez zukuten dituzte Erri indartsuek Erri txikiak. Dirundun behartsuak. Erri aberatsak aberatsago eta behartsuak behartsuago bihurtzeko bide dira armak. Zazpirehun milioi dolar irabazi ditu Nixon-en Gobernuak "Erri behartsuek" laguntzeko pillatutako diru-atxorretik egindako armak atzerrietara salduz. Ipar-Amerikako armen bidez eusten zaie Ego-Amerikako eta beste toki batzuetako diktadorei. Ipar-Amerikako armei eskerrak zaitzen dituzte toki oietako dirundun beren lurrik eta ondasu nak.

Irurugeitza hamar milioi dolar irabazi zituen Samuel Cummings armagilleak 1969'ngo urtean. Lau milioi eta erdiek lan egiten dute Ipar-Amerikan armagintzan. Ehun eta ogei milia milioi dolar txautzen dira urtero armamenduetan mundu zabalean. Zazpi milia dolar eraglitzen dira munduan soldadu bakoizterako. Ehun dolar bakarrik ama ukotez eskolatzen.

Ikus, adibidez, jabetu gaitzen, zer egin ditek "B-52" da-lako Bonhardero batekin. Bi mila eta bostehun irakasleei urteko soldatako ordaindu. Milla ikastekiko iru Unibertsitate jaso. Berrogeita hamar milia traktore erosi. Milla eta berrehun etxebizitza egin.

Zer dirutza elkarri heldurra sartzeko, elkar menderatzeko, elkar itzeko! Ai ori guzia gizadiaren premiak estaltzeko eta zuzentzeko erabiliko bait!

Baia hai zera! Ez dago ortarako itxurarik ere.

Pakea! Pakea ostegiten dugu guziok. Baia zer gerta ere, ortzetariño artzaten gera. Badirudi atera ezin ditek zurrin-billoan sartu dela gizadia!

Nola iritzi egiazko pakea? Noizkorako?

BALLYMUN

Bereziki gure hizkuntzaren kezka fina dutenentzat idazten ditugur lerro hauek. Eta zokario lituzaidake artikulu hau zenbaiti gogoa-iturri eta ondorio-eragile gertatzea.

Herrien eta hizkuntzen gorabehar zientziakior behar dira aztertu. Hots, ahotan «zientzia» eta «zientifiko» hitzak maiz darabilzkiten batzuek, ez dakite, itxura denez, ezertxo ere hizkuntzen bizitzaz eta heriotzaz; eta, okerrago dena, ikasteko asmo menderenik ere ez dute ageri.

Orain dela bi hilabete manifestazio baketsu bat izan da Eire-n (Hegoaldeko Irlanda askatuan, alegia). Baile-Muna deritzan herrian (Ballymun in glesez). Fotoak ere ikusiak ditut. Hauetan guraso eta haur mordo bat ageri da, pankarta askoren eramale; eta pankarta horietan, denak gaelikeraz idatziak, Dublingo Gobernuaren kontrako hitz gogorak irakur daitezke. Manifestazioa Ballymun-go Erakastuntzaren Ordezkaritza ofizialeko lekuetan egin zen. Zergatik?

1964ean lege bat eman zuen Dublingo Gobernuak: 10.000 biztanletatik gorako hiri guzietan, eskola bat gutxienez zabalduko zen gaelikera hitsez («gaelik» da Irlandako zelta hizkuntza). Garbiakago esan dezagun: herri haunditan gaelikerazko «ikastola» bakar bat gutxienez.

Ballymun-go guraso batzuek, legezko eskubide hori baliatuz, ikastaroa hasi baino lehenago gaelikerazko ikastola bat zabalzea eskatu zuten. Ballymun-en ba daude, hain zuzen, inglesezko eskola ba-

tzuk (ez bat bakarrik, beraz). Dublingo Gobernuak ezekoa eman die guraso horiei. Eta ukera horren ondorioz izan da joan den Urrian gorago aipatu dugun manifestazioa (manifestazio ahula, dena dela).

Dubringo Gobernuak orduan, «soluzio» bat aurkitu du. Ballymun-go eskola ingles horietako batetan, alboko batimendu prefabrikatu kaxkar batetan, gaelikerazko ikastola bat zabalzea erabaki du. Leku txarra guziz. Gurasoek, besterik ezean, amor-eman egin dute. Gaelikeraren defendatzailea den «Conradh na Gaeilge» organizazioak beste protesta bat bidali du Dublinara, esperantza haundirik gabe; eta, Irlanda Askatuko Gobernu «full of Quislings» dagoela salatu du; hau da, traidorez josia dagoela. (Quisling izan zen, irakurleak dakitzeenez, azkeneko mundu-guduan Hitler-ekin kolaboratu zuen noruegatar buruzagi ustela).

Gertakari harrigarri hau ez da lehenengo Irlanda Askatuaren kondarrian. Hizkuntzaren pizkundea ez zuten behinere gogor hartu Irlandaren askatasunaren alde burruka egin zutenek; eta Albert Daxuz hizkuntzalaririk dionez, «au XIX siècle le mouvement nationaliste fut conduit en anglais par des hommes qui ne parlaient que l'anglais». (Euskeraz: XIX mendean, abertzale mugimendua inglesz eraman zen aurrera, eta inglesz besterik ez zekiten gizonek zuzendu zuten). Eta askatasun politikoaren ondoren ere (1921-er gerotik) itxura egin da, espantu haundiak (1922-an «nazio-hizkuntza» aitortu zen gaelikera; eta 1937-an «lehenengo lege-hizkuntza»); baina Irlandaren aintzindakia beren hartan segi zuten, inglesz barra-barra, hizkuntzaren problema zinki senditu ez dutelako.

Irlandarrak separatistak ziren Londresen buruz, katoliko integristak, borixaren aldekoak, eta abar. Etniarik futsua Irlandan galdu ala, halere, aldakuntza bat gertatu zitzaion Irlandar garrari; eta, inkontzientean gertatu ohi den bezala, mami berberari («adierazi» berberari, estrukuralistak bezala mintzatzen), Londresen kontrako herria berberari, beste sinu bat, beste arrazoi bat itatsi zitzaion, alegiazko, edo aursarki hanpatu bederen (beste «adierazle» bat). Irlandako gaeliketasuna, erlijo-integristen bihurtu zen, konplejoetan eta ametsetan. Freud-eg gerotik dakigunez, egiazko problemari beste jakera edo sinbolo bat erantsi ohi zaien bezala, eta psikiatra ez dena galbide-etatik abiatuz.

Orain, noski, askatasunaren ondoko berotasuna itzalduta, gero eta okerrago.

ROSC aldizkariak auzalten duenez, hiru parte ditu Dublingo Gobernuaren jokoak gaelikera «garbiki» ehortzeko:

1. Diru-aitzekiak aipatuz, moldiztegitik aterarazi ditu gaelikeraz prestatzen ari ziren liburuz batzuk. Eta horrela gero «libururik ez da gogoelako» inglesez emango da irakaskintza.
 2. Maisu eta maistrantzako Eskola Normalean gaelikeraren kontrako ideia-lana egiten da.
 3. Ministerioko ordezkariek bekar herriz herri ibiltzen dira, eta bertako irakasleek gaelikera alde batera uzteko eskatzen diete.
- Gaelikerazko irakaskintza, horretara, gain behera doa sail guzietan:
- Lehenengo mailan:
- | | | |
|------|-----|----------|
| 1940 | 280 | ikastola |
| 1971 | 52 | * |
- Bigarren mailan:
- | | | |
|------|-----|-------|
| 1940 | 100 | lizeo |
| 1971 | 20 | * |
- Gaelikeraz mintzatzen DAKITEN (ez dugu «darabilten» esan, kontuz!) irlandarren kopurua hauek dira:
- | | | |
|------|-----------|-------------------|
| 1800 | 4.000.000 | hiztun |
| 1911 | 436.758 | * |
| 1921 | 280.000 | * |
| | | (Askatasun-Urtea) |
| 1956 | 85.547 | * |

Zifra hauek ofizialak izanik, egia izukatzen eta apaintzen dutela ez dago dudarik.

Gauzak oraindik ere harrigarriago dira. Dato ofizialek berek dituzte, 1961-ean irakasle % 96-ek dakite gaelikeraz! Eta egia da diploma bat bildurik dutena; guk hemen ingleszko diploma bat izan dezakegun bezala... Ehuneko 96 hori sinetsiz gero, Gobernuak benetan gaelike-

ra irakastea nahi ez duela aitortu behar da.

Dublingo Gobernuak zuritu egin nahi du bere burua noski. Eta gaelikera-dunen kopurua, diplomen arabera kontatzen du:

| | | |
|------|---------|-------|
| 1936 | 666.601 | lagun |
| 1946 | 582.725 | * |

Halaz ere, beraz, zifra hauetan berretan ageri denez, diplomatuen itxurari hori bera doa gain-behera.

Dublingo Gobernuak, hitz batez, ez du jokatu Londreskoak baino hobeki. Zergatik? Honetan ba dago zer pentsatutik. Eta ez zer pentsatutik bakarrik.

Kakoa gauza nabarmena iruditzen zait. Hizkuntzaren hedarea txikia ez da aski; ez dira askoz ere zabalgago dinamarkerarena, islandierarena, albanierarena, eta beste mila. «Berandu hasi ziren», diote beste batzuek. Baina hau ere ez da egia; beranduago hasi bait ziren txiki-rrak, eta are beranduago juduak.

Irlanda Askatuko abertzaleen guraso abertzaleak, 1880an eta 1900-an, «leporaino» zeuden, «buruko ileetaraino» zeuden; baina isildu egin ziren, «pazientzia» hartu zuten, eta... zulora joan ziren bere «leporaino»-ko nazkak eta gutzi. Orain berandu da. Orain Gobernu Askatua dute kontrat.

Uzta bildu nahi duenak, garaz erein behar du; berandu ereiteak eta ezertxo ere ez ereiteak ondorio berbera dakarte: uzterik eza.

Irlandarrak «gerorako» utzi zuten hizkuntzaren soluzioa, lehentasuna beti besteri eman zitoten, irlandar postu gorentan hizkuntza ez zekitenak onhartu zituzten, abertzale burruka eta hizkuntzaren aldeko burruka elkargandik berezi zituzten; eta, hitz batez, inglesea hartu zuten mintzabide bakartzat, eta gaelikera «taktikaz» behin eta berri-riuz baztertu. Geroko eta besteentzako utzi zuten gaelikeraren arazoa. Eta hala gertatu da: gaelikera hildakoen arazo bihurtu da, «betirako «beste» geliditu diren horientzako...

Gauza ezaguna da: bideek baldinu egiten dute helburua. Bidea eta helburua elkarri datzeko. Dialektika gure artan horren modan egonik, hizkuntzaren etorkizunari berriz dialektika-lege horietzen ondorio nabarmenak diren hauek nola ez diren maizago aztertzen, eta azterketaren arabera gero jokatzen, eta ez ulertzen. Zer ari gara? Aski komerla! Euskeraren etorkizuna GAUR jokatzen da, ez bihar; AURTEN, ez gurtz.

Ballymun-en etsempulu hits hau euskaltzale gazteen gogoan nahi nuke itatsi, ikaspide ezin argitsu-ago delako.

Gaurtxe dugu euskaldunok erdal-tzaleak apaltzeko behar hertsia. Gaurtxe, nik uste; ez bihar, ez inolaz ere etzi. Gaurtxe. Ala Ballymun datorrigu, hori ere baldin badator...

Euskaltzaleok elkarrekin erabaki behar dugu arazoa da, noski, gaurko hau; beste guziak bezala. Baina ba dirudi ardi iharrak ebakitze-ko parada heldu zaigula. Eta adar ihar horiek zein dira? Morroin-uzteak. Euskaldunok gehiengo garen biltzetan, eta arago «euskal» taldeetan eta organizazioetan; zuk daskizun hitzak gogoratzu beste guziok erdal monolinguietara bortax-ten gaituzten horietan. EZ guziz-ko bat botatzeko garaia etorri da.

Bilbon eta Maulen, Leitzen eta Arrasaten, Ondarruan eta Hazparnen, euskal arazoei buruzko bileretan oso bereziki, Ballymun-ik ezagutu nahi ez badugu, gaurtxe da nik uste eguna, ZER GARTA ERE, eta NOR HASARRE ERE, «denbora-gaitze»-aren eta «edukazio-falta» horien gainetik, planto egiteko; eta interpreteak eskatuz ala bileratik hanka-eginez, euskerak GURE ARTEAN BEDEREN dituen eskubideak errespertatzeko.

Ez elizan bakarrik, anti-klerikalismo erraz bat egiteko. Ez denetan eta barretan bakarrik. GEURE ARTEAN aurrenik, euskal ekintzatan bereziki, eta gure «borrokideek» (?) gu euskeraz mintzatzen jasan gaituzten.

Denona da araska hitza.

LARRORSO

EUSKAL MITOLOGIA

I G A N D E A

Igandean burua bero, poltsa huts eta kupida sobera. Igandeko gutzia aldrebesenak kausa jakina du: egundadearen hasperena.

Igandez jaja jardun, eginbehar bilakaten da. Igandea, eskizofrenia askoren jatorria da. Jakina denez eskizofrenia, nortasunaren bikoitzasunean datza; baina pertsona gai-koak, zeren eskizofrenia gaitza dugu, ez daki bere burua bikoitza denik. Klaroago izate arren, esanen dut eskizofrenia sozial hau, alienazio gisa bat dela.

Komunzki, igandea festa denbora bezala hartu ohi izan dugu: baina zehazki, igandea aste-egunaren zilborra dugu. Astearren jatorri eta helburua. Igandea aste-egunaren osaketua da.

Igandearren «osaketa», alderdi honetan, nabari dugu bere funtsa: orobat eberdin da, zerbaiten ukazio larri eta desaitortua da. Hain zuzen ere igandea, aste-egun lantsu, alienatu eta neketsuen ukazioa da.

Hamar eta hamabi orduz egunero lanean jarduten duan langilea ito bide da, aspertu bide. Eguneroko lan ezordaindu eta gutti preziaz-aren poderioan langileak ezin etsia du, igandean aurkitzen du bere pena eta desesperantzaren sasegua eta geriza. Langileria zapalduaren emplastorik gozoena eta sasi-osagi-leena igandea da.

Igandearren historiaz arduratzen, juduen «larunbateraino» atzeratu beharrean gara. Juduentzat, larunbata, instituzioa erlijiosoa zen batak bat. Juduentzat larunbata ez zen gizonez eguna, Jainkoaren baiziki. Haienztaz ere, larunbataren funtsa egundadearen ezetean zutuzan.

Gero, kristau zibilizazioaren zehar igandek, juduen larunbata zituari karakteristika berak, bere egin zituan. Eta igandea «Jainkoaren eguna» izatea heldu zen. Gizonak eta haren eguneroko biziaz beste zen, zerbaiten eguna.

Nehork, seriosa denak behintzat, ez du ukatuko aintzina kristaua pentsaeren, igandek zuan zentzuna hura galduea edo galbide, behintzat, dela egungo geure gizarte agnostiko honetan. Igandek zuan nortasun erlijiosoa gaitzetsia dakusag egun. «Jainkoaren eguna» zen hura, beste «zerbaiten eguna» bilakatu da.

Zentzune aldaketa honetan datza,

batik, egungo igande honen mitoloalderdia. Igande hitza, lehenengo da; baina bere esangura aldatu da. Igandek adieritzen zuan errealitate erlijiosoa, aldatua gertatu da. Langileria baten azken jomuga eta gutzia bakarra igandea den bitartean, bidegabe luke bere egoeraz jabetzea eta are guttiago jasaten duan zapaketaren arka matxinatzea. Hemen datza, nire aburuz, igandek duan alderdi politikoko guttiz inportant eta nabarmena. Zozerkia deritzat igandeari apolitikot esatea; eta halaber, igandea, ikuspegi erlijiosoa soilaz ikusmiratzea.

Besterik, igandea sasegu edo oppardali izan daiteke. Baina denok dakigu zenbatarainoak diran astelehenerako resakak eta igande arritseo nekaldi larriak.

Denda den, klarri irakasten dauku iganderen mitoak, euskal langilek dugu zenbait akats, bidegabe, pentsaera desegoki eta ardura oker. Historiaren funtsa langintzaren saiera bada, eta histori horren xedea lanaren birreroketa bada, aski dugu euskal langileok geure begirada motzaz. Zeren oso motza da sei egunez neurtzen den begirada, eta are laburrago aste-beteko ziklo hertsia.

Euskal langileriak luzarago fidatut beharko du bere gerroz; igandearren muga gertuegitik al, areago. Igande bat, eta bestearren lilura urriak historiaren katea luzeta etentzen du, gure ardura dinamiko nagituz. Historiaren dialektikak muga hertsia da, astebeteko saiera.

Igandearren sagaratasuna kutsatuz gero jakinen dugu, geure egoeraren neurri luze eta zabala; eta halaber geure historiari dogozkin lorbide eta soluzio premiazkoak. Finean, permiti zeidazu, irakurle, ere balizko amets bat hemen eskribatzea: Egunen batetan, astea jai bilakatuko dugu, baina jai hura ez da Domeka izanen, ez. Aitzitik, aste-egun birrososi bat izanen da hura. Geure histori berezko eta luze baten uste ttipi bat. Egun, kondairak izutu egiten gaitu, baina kondaira ere bortaxu beharrezko dugu, gain-behera irauli beharrezko.

Ordea, igandea, lantegiko nekeen sariketa merkea ere ba dugu. Pentsa dezagun zer gerta daitekeen, baldin igandearik ez balitz, eta langileak eguneroko explotazio bera jasan beharko balu, sasegurik gabe; zera... nagusien egunak konta halakoak izanen lirake. Matxinadoren indarrir eragileena, leporaino dagoenaren hasperena eta ezin etsia da. Igandea, langilearen karamelo garestia da. Astelehenaen, lanera doan proletaria igandearren lilurak eraginik doa, edo behintzat gozatutik. Askoren ustean, igandea gizonaren «estatu naturala» da, berezko arabera; hau da, igandea litzake zenbaitentzat biz-modu nor-

Luis Haranburu-Altuna